

aurretiko fiskalizazioari dagokiona, inolako eragozpenik gabe burutu direla kontuan hartuta,

Barakaldoko Udalak helduei euskara ikasteko dirulaguntzak emateko araudi erregulatzaileraren 7. artikulua babestean, eta Euskara arloko zinegotzi ordezkariak proposatuta, Alkate-Udalburuak honako hau

EBATZI DU

LEHENA.- Barakaldoko Udalak 2018-2019 ikasturtean euskara ikasi duten helduei dirulaguntzak emateko deialdia (201900909 zenbakiko espedientea) onartu du, ondoren adierazten diren baldintzen arabera:

Barakaldoko Udalak 2018-2019 ikasturtean euskara ikasi duten helduei dirulaguntzak emateko deialdia

2016ko ekainaren 21eko BAOko 118. alean argitaratutako *Euskara ikasteko helduentzako dirulaguntzak emateko araudiak* xedatzen duenari jarraiki, Euskara arloak honako deialdi hau prestatu du, Barakaldoko Udalak dirulaguntza horiek behar bezala kudeatu eta eraginkortasunez kontrolatuko direla bermatzeko tresna izan dezan.

1. artikulua - Laguntzen zenbatekoa

BERROGEI MILA eurokoa (40.000,00€) da deialdi honen gehieneko aurrekontua, eta 01000 33500 4800302 aurrekontu-atalari dagokio.

Araudiaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntzaren zenbatekoa ez da, inoiz ere, eskatzaileak ordaindutako matrikularen %100 baino altuagoa izango.

ellos la fiscalización previa sin que se hayan emitido reparos.

Al amparo del citado art. 7 de la Normativa reguladora de las ayudas a conceder por el Ayuntamiento de Barakaldo a personas adultas para el aprendizaje de euskera y a propuesta de la concejala delegada de Euskera esta Alcaldía-Presidentencia

RESUELVE

PRIMERO.- Aprobar la Convocatoria de ayudas a conceder por el Ayuntamiento de Barakaldo a personas adultas para el aprendizaje de euskera, correspondiente al curso académico 2018-2019 (Expte. 201900909) en los términos que se señalan a continuación:

Convocatoria de ayudas a conceder por el Ayuntamiento de Barakaldo a personas adultas para el aprendizaje de euskera en el curso académico 2018-2019

En base a lo dispuesto en la *Normativa reguladora para la concesión de ayudas a personas adultas para el aprendizaje de euskera*, publicada en el BOB nº 118 de fecha 21 de junio de 2016, el Área de Euskera elabora la siguiente convocatoria, con el fin de dotar al Ayuntamiento de Barakaldo de un instrumento que garantice una adecuada gestión y un eficaz control de dichas ayudas.

Artículo 1.- Cuantía de las ayudas

El límite presupuestario de la misma es de CUARENTA MIL EUROS (40.000,00€) con cargo a la partida presupuestaria 01000 33500 4800302.

De conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la Normativa, la cuantía de la ayuda a percibir no superará nunca el 100% del coste de la matrícula pagada



Halaber, onuradun bakoitzari eman ahal izango zaion gehieneko kopurua ezarriko da, alegia, onuraduneko eta urteko BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO (561,00€), ondorengo irizpidea aintzat hartuta: 2018-2019 ikasturtean HABEk homologatutako Barakaldoko euskaltegietan egon den urte osoko (urria – ekaina) ikastaro presentzial baten kosturik altuena.

Dirulaguntzaren zenbatekoari eskatzaileak beste erakunde edo enpresaren batetik jaso lezakeen laguntza publikoa edo pribatua gehituta, batuketak ezin izango du matrikularen gastu osoa (%100) gainditu. Horrela balitz, Udal honek emandako dirulaguntza era proportzionalen murriztuko litzateke.

Jasotzen diren eskabide guztiei dagokien zenbatekoa deialdiak finkatzen duen aurrekontua baino altuagoa edo txikiagoa balitz, ebazpen-organoak hainbanatu egingo luke aurrekontua onuradun izateko eskakizunak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean, eskatzaile bakoitzari dagokion gehieneko kopuruaren arabera.

2. artikulua - Xedea

Eskatzaileak 2018ko irailaren 1a eta 2019ko abuztuaren 31 bitartean egindako ikastaroetan (urritik ekainera bitartekoak, udako trinkoak edo barnetegiak) ordaindutako matrikula-gastuak lagunduko dira diruz. Barnetegien kasuan, irakaskuntza gastuak baino ez dira diruz lagunduko, inoiz ez ostatu edo mantenu gastuak.

Hautatutako ikastegia zein ikastaroa (aurrez aurrekoa edo autoikaskuntzakoa) HABEk homologatuak izan beharko dira, eskatzaileak dirulaguntza jaso ahal izateko.

por el/la solicitante y así mismo establece un importe máximo a conceder de QUINIENTOS SESENTA Y UN EUROS (561,00€) por solicitante y año, en base al siguiente criterio: el coste de la matrícula más elevada de un curso presencial de duración anual (octubre – junio) que se haya ofrecido en el curso 2018-2019 en cualquiera de los euskaltegis de Barakaldo homologados por HABE.

La cuantía de la ayuda, sumada a otras subvenciones públicas o privadas que el o la interesado/a pudiera percibir de cualquier otra empresa o institución no podrá, en ningún caso, superar el importe total de la matrícula (100%). Si así fuera, se reduciría proporcionalmente la subvención otorgada por este Ayuntamiento.

Si la cuantía derivada del número de solicitudes excediese del presupuesto disponible o no llegara a agotarlo, se efectuará una prorrata entre todos los/las solicitantes que cumplan todos los requisitos para ser beneficiarios/as, en función de la cuantía máxima correspondiente a cada uno de ellos.

Artículo 2.- Objeto

Serán objeto de subvención los gastos de matrícula abonados por el o la solicitante para la realización de cursos de euskera en el período comprendido entre el 1 de septiembre de 2018 hasta el 31 de agosto de 2019, ya sean de carácter anual (de octubre a junio), intensivos de verano o barnetegis (en este último caso, se subvencionarán únicamente los gastos de enseñanza, nunca gastos de estancia o manutención).

Tanto el curso (presencial o de autoaprendizaje), como el centro de aprendizaje elegido deberán estar homologados por HABE para que el o la solicitante pueda optar a la subvención.

3. artikulua - Onuradunak

Aurreko artikuluan aipatutako ikastaroetan matrikulatutako barakaldarrak izango dira onuradunak.

Onuradunen artean zenbateko altuagoa jasoko dute ondoko kolektiboek:

- Arestian aipatutako ikastaroetan matrikulatutako guraso edo legezko tutoreek, beti ere 16 urtetik beherako seme-alabaren bat badute B, D edo ikasgaien % 50 baino gehiago euskaraz dituen ereduren batean ikasten eta eurekin bizi badira.
- Barakaldoko saltokietan edo ostalaritzan lan egiten duten merkatarik edo ostalariek, aisialdiko begiraleek, ikastetxeetako jantokiko begiraleek, kirol entrenatzaileek eta arbitroek.
- Ikastaroak iraun duen bitartean langabezia egoeran zeuden pertsonak, beti ere egoera hau egiaztatzen badute, eta 5. artikuluan zehazten den proportzionaltasun irizpidearen arabera.
- Ikastaroak iraun duen bitartean Oinarrizko Errenta edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) jasotzen ari ziren pertsonak eta inolako diru-sarrerarik gabeko langabeek, beti ere egoera hau egiaztatzen badute eta 5. artikuluan zehazten den proportzionaltasun irizpidearen arabera.

Kasu guztietan nahitaezko baldintza izango da eskatzailearen diru sarrerak dirulaguntza deialdi honetan ezarritako mugak ez gainditzea.

Artículo 3.- Beneficiarios

Todos aquellos vecinos/as de Barakaldo matriculados en alguno de los cursos a que se ha hecho referencia en el apartado anterior.

Se favorecerá con una mayor cuantía económica a los siguientes colectivos:

- Padres, madres o tutores legales matriculados en alguno de los cursos anteriormente mencionados, que tengan hijos o hijas menores de 16 años estudiando en modelos B o D (o que tengan más del 50% de las asignaturas en euskera) y que convivan con ellos.
- Comerciantes u hosteleros que realicen su actividad en Barakaldo, monitores/as de tiempo libre, monitores/as de comedor de centros escolares, entrenadores deportivos y árbitros.
- Personas que, mientras realizaban el curso de euskera, se encontrasen en situación de desempleo, siempre y cuando acrediten dicha situación y en base al criterio de proporcionalidad que se detalla en el artículo 5.
- Personas que, mientras realizaban el curso de euskera, estuviesen percibiendo la Renta Básica o Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y personas en situación de desempleo sin ningún tipo de ingresos, siempre y cuando acrediten dicha situación y en base al criterio de proporcionalidad que se detalla en el artículo 5.

En todos los casos será requisito imprescindible que los ingresos económicos no superen los límites establecidos en la presente convocatoria de ayudas.



Ez du dirulaguntzarik jasoko honako egoeretako baten batean dagoen pertsona orok:

- Deialdia araupetzen duen Araudiaren 4.10. artikuluan aipatutako edozein.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako edozein.

4. artikulua – Betekizun orokorrak

1. 16 urte baino gehiago izatea.
2. Barakaldon errolatuta egotea, eskaera egin baino urtebete lehenagotik, gutxienez.
3. HABEK onetsitako euskaltegietan homologatutako ikastaroren bat egin izana.
4. Ikastaroaren aprobetxamendu egokia egiaztatzea.
5. Ikastaroan emandako orduen %70,00eko asistentzia, gutxienez, egiaztatzea.
6. Bizikidetz-unitatearen (hurrengo puntuan -7- jasotako zehaztapenak aintzat hartuta) diru-sarrerak kontuan izanda, dirulaguntza jaso ahal izango dute ondoko sarrerak gainditzen ez dituzten guztiak:

Bizikidetz-unitate kideak	Bizikidetz-unitatearen diru-sarrerak
1	25.200,00
2	37.800,00
3	45.360,00
4	54.432,00
5	65.318,40
6	78.382,08

7. Kalkulu guztiak 2018ko Errenta

No podrán obtener la condición de beneficiario personas en quienes concurren las siguientes circunstancias:

- Cualquiera de las enumeradas en el art.4.10 de la Normativa que regula esta convocatoria.
- Cualquiera de las enumeradas en el art.13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 4.- Requisitos generales

1. Ser mayor de 16 años.
2. Estar empadronado/a en el municipio de Barakaldo, con una antigüedad mínima de un año en el momento de formalizar la solicitud.
3. Haber realizado el aprendizaje en centros y cursos homologados por HABE.
4. Acreditar un adecuado aprovechamiento del curso.
5. Acreditar una asistencia de, como mínimo, el 70,00% del total de horas impartidas en el curso.
6. Podrán recibir subvención todas aquellas personas cuya unidad convivencial (teniendo en cuenta las especificaciones que al respecto se establecen en el apartado siguiente -7-) no supere los siguientes ingresos económicos:

Miembros unidad convivencial	Ingresos unidad convivencial
1	25.200,00
2	37.800,00
3	45.360,00
4	54.432,00
5	65.318,40
6	78.382,08

7. Todos los cálculos se aplicarán en

aitorpenaren arabera egingo dira, errenta mailatzat PFEZen zerga-oinarri guztien (zerga-oinarri orokorra gehi aurrezpenaren zerga-oinarria) batuketa hartuta. Eskatzaileak, diru-sarrerak izan arren, errenta aitortpena egin behar izan ez badu, edozein kontzeptu dela eta egiaztatutako diru-sarrera gordinen batuketaren %95 hartuko da errentatzat.

Familia egoeraren arabera, hiru talde ezarriko dira kalkulua egiteko:

7.1. Baldin eta eskatzailea gurasoen etxean errolatuta badago, kide bakartzat har dadin bere errenta aitortpena aurkeztu beharko du.

7.2. Baldin eta eskatzaileak bere familia unitate propioa osatu badu, kideztat hartuko dira bai bikotekidea bai eta errenta aitortpenean agertzen diren seme-alabak ere.

7.3. Baldin eta eskatzailea bakarrik errolatuta badago edo guraso edo bikotekide ez direnekin errolatuta badago, kide bakartzat joko da.

5. artikulua – Eskabideak balioztatzeko irizpideak

Laguntza matrikula gastuen %100era hel daiteke, beti ere ondorengo irizpideen arabera:

- Onuradun arrunta: **%60**
- Onuradun berezia:
 - **%80:**
 - Gurasoak / tutoreak
 - Aisialdiko, jantokiko begiraleak
 - Kirol entrenatzaileak, arbitroak
 - Barakaldoko saltokietako merkatari, ostalariak
 - Diru-sarreradun langabeak

base a la declaración de renta del ejercicio 2018, entendiendo como nivel de renta la suma de todas las Bases Imponibles del IRPF (base imponible general más base imponible del ahorro). Si el o la solicitante, a pesar de haber tenido ingresos, no ha tenido que presentar la declaración de renta, se computará como renta el 95% de la suma de los ingresos brutos acreditados por cualquier concepto.

Según la situación familiar, se establecerán tres grupos de cálculo:

7.1. Cuando el o la solicitante esté empadronado con sus padres, sólo se le considerará miembro único si presenta su propia declaración de renta.

7.2. Cuando el o la solicitante haya formado su propia unidad familiar, se considerarán asimismo miembros computables tanto la pareja como los hijos/as que figuren en la declaración de la renta.

7.3. Cuando el o la solicitante esté empadronado/a solo o cuando lo esté con personas que no sean sus padres o pareja, será considerado como miembro único.

Artículo 5. Criterios de valoración

La ayuda podrá cubrir hasta el 100% del coste de la matrícula, conforme a los siguientes criterios:

- Beneficiario/a ordinario/a: **60%**
- Beneficiario/a específico/a:
 - **80%:**
 - Padres/madres/tutores
 - Monitores de tiempo libre, comedor
 - Entrenadores deportivos, árbitros
 - Comerciantes, hosteleros de establecimientos de Barakaldo



- Barakaldoko euskaltegietatik kanpo ikasten duten diru-sarrerarik gabeko langabeak
- Barakaldoko euskaltegietatik kanpo ikasten duten oinarrizko Errentaren edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (RGI) hartzaileak
- **%100:**
 - Barakaldoko euskaltegietan ikasten duten diru-sarrerarik gabeko langabeak
 - Barakaldoko euskaltegietan ikasten duten oinarrizko Errentaren edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (RGI) hartzaileak
- Parados/as con ingresos
- Parados/as sin ingresos que estudien en euskaltegis fuera de Barakaldo
- Perceptores de Renta Básica o Renta de Garantía de Ingresos (RGI) que estudien en euskaltegis fuera de Barakaldo
- **100%:**
 - Parados/as sin ingresos que estudien en euskaltegis de Barakaldo
 - Perceptores de Renta Básica o Renta de Garantía de Ingresos (RGI) que estudien en euskaltegis de Barakaldo

Langabezi egoeran dauden pertsonak edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenek ezin badute egiaztatu egoera hau ikastaroak iraun duen denbora osoan, proportzionalki egingo zaie kalkulua; hala, langabezian edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen egon diren denboran onuradun berezizat joko dira, eta gainerako denboran onuradun arruntak izango dira.

A todas aquellas personas que encontrándose en situación de desempleo o siendo perceptores de la RGI, no pudiesen acreditar esta situación durante la duración total del curso objeto de subvención, se les aplicará un cálculo proporcional, mediante el cual durante el tiempo en que hayan permanecido en situación de desempleo o percibiendo la RGI se les considerará como beneficiarios/as específicos/as, y el resto del tiempo se les computará como beneficiarios/as ordinarios/as.

6. artikulua – Aurkeztu beharreko agiriak

ESKATZAILE GUZTIEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA:

- a) Eskabide-orria, eskatzen diren datu guztiak adierazita (I. Eranskina)
 - Eskatzailea adin txikiko ez emantzipatua izanez gero, eskaera guraso edo tutore batek egingo du bere izenean; edo bestela, eskaeran guraso edo tutore honen baimena agertu beharko da.
 - Eskatzailea eta ordainketa jasoko duen kontu korrontearen titularra pertsona

Artículo 6. Documentación a presentar

DOCUMENTACIÓN GENERAL A APORTAR POR TODOS LOS SOLICITANTES:

- a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado (Anexo I).
 - Cuando el solicitante sea menor de edad, no emancipado, la solicitud será realizada por un progenitor o tutor o, al menos, deberá consignar su aprobación.
 - El solicitante y el titular de la cuenta bancaria donde deberá

bera izan beharko da.

- b) Matrikula gisa egindako banku ordainketa guztien agirien fotokopia.
- c) www.habe.euskadi.eus orrialdetik jaso daitekeen "Ikaslearen ibilbide-oso" agiria:
- "HASI SAIOA" klikatu (goiko aldea).
 - Norberaren erabiltzaile eta pasahitza sartu. (Jakin ezean, euskaltegian galdetu).
 - "Datu pertsonalak eta akademikoak" klikatu.
 - Ezkerreko zutabearen agertzen den "Matrikulazioa" atalaren barruan, "Ikaslearen historiala" klikatu.
- d) Familia edo bizikidetzaren unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko 2018ko Zerga aitortpenaren fotokopia edo Bizkaiko Foru Ogasunaren egiaztatzea non jasotzen den ez duela errenta-aitortpena egin, baita urte fiskal horretan izandako diru-sarrerak ere.

DOKUMENTAZIO GEHIGARRIA:

- a) B edo D ereduaren matrikulatutako 16 urtetik beherako umeen guraso edo tutore legalak:
- Seme-alabak B, D edo ikasgaien %50 baino gehiago euskaraz dituen ereduaren batean matrikulatuta daudela egiaztatzen duen ikastetxearen agiria.
- b) Aisialdiko edo ikastetxeetako jantokiko begiraleak, kirol entrenatzaileak, arbitroak eta Barakaldoko saltokietako merkatari edo ostalariak:
- Egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
- c) Ikastaroak iraun duen bitartean langabezi egoeran zeuden pertsonak:
- *Segurantzaren Sozialak ematen duen*

hacerse el abono habrán de ser la misma persona.

- b) Fotocopia de todos los resguardos de pagos bancarios en concepto de matrícula.
- c) Documento "Historial alumno-todo" procedente de la pag. web www.habe.euskadi.eus :
- Hacer clic en "ACCESO" (parte superior).
 - Introducir usuario y contraseña personal. (Preguntar en euskaltegi, si se desconoce)
 - Hacer clic en "Datos personales y académicos".
 - En la columna de la izquierda, apartado de "Matriculación", hacer clic en "Obtener historial".
- d) Fotocopia de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del ejercicio 2018 de todos los miembros de la unidad familiar o convivencial o, en su defecto, certificado de la Hacienda Foral de Bizkaia de no tener obligación de realizarla, donde consten los ingresos obtenidos durante el año fiscal correspondiente.

DOCUMENTACIÓN ADICIONAL A APORTAR EN EL CASO DE:

- a) Padres, madres o tutores legales de niños/as menores de 16 años matriculados en modelos B o D:
- Certificado del centro educativo que acredite la matriculación de sus hijos/as en modelos B – D o con más del 50% de las asignaturas en euskera.
- b) Monitores/as de tiempo libre o comedor de centros escolares, entrenadores deportivos, árbitros y comerciantes u hosteleros de establecimientos de Barakaldo:
- Documentación acreditativa de tal situación.
- c) Personas que, mientras realizaban el curso de euskera, se encontrasen en situación de desempleo:
- *Copia del "Informe de vida laboral"*

eta Udaleko web orrietan
(<http://euskara.barakaldo.eus/> zein
www.barakaldo.eus) egongo da eskuragai.

8. ARTIKULUA - DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA

Eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, kalifikazio-epaimahai bat eratuko du Udalak. Ondoko hauek izango dira epaimahaikideak: Euskara arloko zinegotzi ordezkaria (epaimahaiburua), Euskararen eskuduntza duen arloko zerbitziburua eta Euskara teknikaria. Hirurek izango dituzte hitza eta botoa. Euskara Zerbitzuko administraria, epaimahaiaren idazkaria izango da; hitza izango du, baina botorik ez.

Dirulaguntza jasotzeko beharkizun formal eta materialak bete direla egiaztatzeko instrukzio fasea eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan hasiko da.

Eskabideak behar den moduan beteko ez balira edo aurkeztu beharreko dokumentazioan hutsunerik balego, hamar laneguneko epea emango zaio interesdunari hutsuneak bete, akatsak zuzendu edo falta diren agiriak aurkez ditzan. Egin beharreko zuzenketak epe horretan egingo ez balira, eskaera bertan behera geratu eta artxibatu egingo litzateke.

Beharrezkoa balitz, instrukzio-organoak bestelako dokumentazio osagarria eskatu ahal izango lieke interesdunari ebazpena eman ahal izateko. Errekerimendua emandako epean beteko ez balitz, eskaera bertan behera geratu eta artxibatu egingo litzateke.

de Barakaldo (Servicio de Atención Ciudadana o Servicio de Euskera) y en las páginas web municipales (<http://euskara.barakaldo.eus/> ó www.barakaldo.eus).

ARTÍCULO 8. TRAMITACIÓN Y CONCESIÓN DE LAS AYUDAS

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá un tribunal calificador, integrado con voz y voto por la concejala delegada del área Euskera que ostentará la condición de Presidenta del mismo, el o la jefe de servicio del área competente en materia de Euskera y la técnico del Servicio de Euskera. El/la administrativo del Servicio de Euskera, ejercerá como secretario/a del Tribunal calificador con voz pero sin voto.

La fase de instrucción para la verificación del cumplimiento de los requisitos formales y materiales para recibir la subvención, se iniciará una vez concluido el plazo de presentación de las solicitudes.

En el supuesto de que se presenten solicitudes que no reúnan todos los requisitos, se requerirá al interesado/a para que en el improrrogable plazo de 10 días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos. En caso de no atender el requerimiento en dicho plazo, se tendrá al solicitante por desistido de su solicitud, y se procederá al archivo de la misma.

En los casos en que se considere necesario, el órgano instructor podrá requerir a los peticionarios/as cuanta documentación complementaria se estime oportuno para poder proceder a la resolución. Si no atendiesen el requerimiento en el plazo concedido, se les tendrá asimismo por desistidos de la solicitud, procediéndose al archivo de la misma.



9. ARTIKULUA - EBAZPENA ETA JAKINARAZPENA

Hiru hilabetekoa (3) izango da dirulaguntzen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik hasita.

Dirulaguntzak onartzeko edo ukatzeko Alkatetza Dekretua udaletxeko iragarki taulan eta web orrian argitaratuko da. Ebazpenak amaitutzat emango du administrazio-bidea; hala ere, berraztertze aukerako errekurtoa aurkez daiteke haren aurka, Alkate-udalburu andreaki zuzendua, hilabeteko (1) epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke bi hilabeteko (2) epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

10. ARTIKULUA - ORDAINKETA

Eskumena duen udal organoak dirulaguntzak emateko jakinarazpena izan eta berehala ekingo dio dirulaguntzak ordaintzeko tramiteari.

ARTÍCULO 9. PLAZO DE RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de subvenciones será de tres meses (3), a contar a partir del día siguiente a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

El Decreto de Alcaldía de concesión o denegación será publicado en el tablón de anuncios y en la página web de la Corporación y contendrá expresa mención a que agota la vía administrativa y a que podrá ser recurrido, interponiendo contra el mismo recurso de reposición, con carácter potestativo ante la Ilma. Sra. Alcaldede-Presidenta, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de la notificación o interponiendo recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos (2) meses a computar del mismo modo.

ARTÍCULO 10. ABONO

El órgano municipal competente, procederá a tramitar el abono de las subvenciones inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención.



BARAKALDOKO UDAL GORENA
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO



EUSKARA ARLOA
ÁREA DE EUSKERA

ESKATUTATO DIRULAGUNTZA MOTA / TIPO DE SUBVENCIÓN QUE SE SOLICITA	
<input type="checkbox"/>	Arrunta / Ordinaria
<input type="checkbox"/>	Gurasoak, tutoreak / Madres, padres, tutores * 3
<input type="checkbox"/>	Aisialdiko, jantokiko begiraleak / Monitores de tiempo libre, comedor
<input type="checkbox"/>	Kirol entrenatzaileak, arbitroak / Entrenadores deportivos, árbitros
<input type="checkbox"/>	Barakaldoko saltokietako merkatari,ostalariak / Comerciantes, hosteleros establecimientos Barakaldo
<input type="checkbox"/>	Diru-sarreradun langabeak / Parados/as con ingresos * 4
<input type="checkbox"/>	Barakaldoko euskaltegietatik kanpo ikasi duten diru-sarrerarik gabeko langabeak edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (RGI) hartzaileak / Parados sin ingresos o perceptores de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) que hayan estudiado en euskaltegis fuera de Barakaldo * 4
<input type="checkbox"/>	Barakaldoko euskaltegietan ikasi duten diru-sarrerarik gabeko langabeak edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (RGI) hartzaileak / Parados sin ingresos o perceptores de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) que hayan estudiado en euskaltegis de Barakaldo * 4

* 3. Euskara ikastaroak iraun duen bitartean, 16 urtetik beherako seme-alabaren bat zeneukan B edo D ereduari ikasten.
4. Euskara ikastaroak iraun duen bitartean langabezia zeunden edo oinarritzko errenta jasotzen ari zinen.

* 3. Mientras realizabas el curso de euskera, eras padre / madre / tutor(a) de un menor de 16 años estudiando en modelo B ó D.
4. Mientras realizabas el curso de euskera estabas en el paro ó percibiendo la Renta de Garantía de Ingresos.

EUSKARA IKASTEKO ESKATUTAKO EDOTA JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK	
OTRAS AYUDAS SOLICITADAS O RECIBIDAS PARA ESTUDIAR EUSKERA	
<input type="checkbox"/>	HABEren diru-laguntza eskatu(ko) dut / He solicitado ó solicitaré subvención de HABE
<input type="checkbox"/>	Beste erakunde publiko edo pribatu baten diru-laguntza jaso dut. He recibido ayuda de otra entidad pública ó privada.
	KOPURUA / CANTIDAD
	€
<input type="checkbox"/>	Ez dut inolako diru-laguntzarik jaso edo eskatu / No he recibido ó pedido ninguna otra subvención.

ESANBIDEZKO BAIMENA / CONSENTIMIENTO EXPRESO	
<input type="checkbox"/>	Baimena ematen diot Barakaldoko Udalari, espedientea ebazteko behar diren datu pertsonalak eta ekonomikoak ez ezik eskatutako beharrezkoak betetzen ditudala egiaztatze beharrezkoak diren bestelako agiriak ere administrazio eskudunean egiaztatu edo frogatu ditzan; horretarako, bitarteko elektronikoak edo erabilgarri dauden bestelako bitartekoak erabiliz. Besteak beste, Foru Ogasunetako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta Diruzaintza Nagusiko, SEPE-Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko, INEMeko eta Lanbideko datuak bilduko dira horretarako.
<input type="checkbox"/>	Autorizo al Ayuntamiento de Barakaldo para que compruebe, constate o verifique en la Administración competente, tanto por medios electrónicos como por otros medios que estén disponibles, los datos de carácter personal y/o económico necesarios para la resolución del expediente, así como cualquier otra documentación que sea necesaria para comprobar el cumplimiento de los requisitos exigidos. Se recabarán los datos de las Haciendas Forales, INSS y Tesorería General de la Seguridad Social, Servicio Público de Empleo Estatal, INEM, Lanbide, entre otros.
<input type="checkbox"/>	EZ DIOT Udalari datuak kontsultatzeko BAIMENIK EMATEN, eta, horrenbestez, eskaera-orri honekin batera ekarri beharko ditut adierazitako datuei dagozkien egiaztagirak.
	NO OTORGO CONSENTIMIENTO al Ayuntamiento para la consulta de datos, por lo que quedo obligado/a aportar los documentos acreditativos de los datos requeridos.

DATU BABESAREN GAINEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA / INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS	
Hobaria eskuratzeko behar diren eskakizun guztiak egiaztatze helburuz tratatu eta txertatu dira jasotako datu pertsonalak aurkeztutako eskaerak xede duen gaiari dagokion tratamendu-jardueran. Barakaldoko Udala (Herriko Plaza, 1, 48901 Barakaldo) da tratamenduaren arduraduna; beraz, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatze, horien kontra agertzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabil ditzakete eragindakoek, arduradunari eskatuta. Interesatua ados egoteak eta lege-eginbeharra betetzeak ematen diote zilegitasuna datu-tratamenduari. Eskaera-orriak xede duen gaiari lotutako udal zerbitzu eskudunari jakinaraziko zaizkio bildutako datuak, eta ez zaizkio beste inori lagako, lege-eginbeharra betetzeko ez bada. Web orrian kontsultatu ahal izango da horri buruzko informazio osagarria.	Los datos personales recogidos serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento correspondiente a la materia a la que se refiera la instancia presentada, con la finalidad de tramitar el pertinente expediente administrativo. El responsable del tratamiento es el Ayuntamiento de Barakaldo, Herriko Plaza 1, 48901 Barakaldo, ante quien las personas afectadas podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación del tratamiento y oposición. La realización de este tratamiento de datos está legitimada por obligación legal y el consentimiento del interesado. Los datos recogidos se comunicarán a los Servicios municipales competentes en la materia relacionada con la comunicación realizada y no se cederán a terceros salvo obligación legal. Asimismo podrá consultar la información adicional en la web municipal.

Eskatzailearen sinadura / Firma solicitante

BIGARRENA.- BERROGEI MILA euroko (40.000,00€) gastua baimentzea 01000 33500 4800302 aurrekontu-atalaren kontura.

HIRUGARRENA.- Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletzeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian argitaratuko du Udalak.

LAUGARRENA.- Jakinaraz dakiola ebazpen hau Funtzen Kontu Hartzaitzari eta itzul dadila espedientea Euskara arlora.

Barakaldoko Udal Goreneko Alkate andreak agindu eta sinatu du, inskripzio zigiluan adierazitako datan, eta Euskara teknikariak eta arloko zinegotzi ordezkariak ere izenpetu dute.

SEGUNDO.- Autorizar el correspondiente gasto por importe total de CUARENTA MIL EUROS (40.000,00€) con cargo a la partida presupuestaria 01000 33500 4800302.

TERCERO.- Procédase a anunciar la Convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento.

CUARTO.- Notifíquese esta resolución a la Intervención Municipal de Fondos y devuélvase el expediente al área de Euskera.


Lo manda y firma la Sra. Alcaldesa en la Casa Consistorial del Iltre. Ayuntamiento de Barakaldo, en la fecha señalada en el cajetín de inscripción, siendo suscrito por la técnico de Euskera y la Concejala Delegada del área.

Ados **ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAren**
EUSKARA TEKNIKARIA HARTU HARTU AURRETIAZKOAZ
Mertxe Andrés Guerrero FISCALIZACIÓN PREVIA Nerea Cantero Gurtubai


TXOSTENAGAZ KONTU HARTU
FISCALIZADO CON INFORME
BARAKALDO 23-8-19

ALKATEA / LA ALCALDESA,
Amaia del Campo Berasategui

Haren berri hartuta / Tomé Razón
IDAZKARI NAGUSIA / EL SECRETARIO
GENERAL,
Humberto Estébanez Martín



Dekretu honak ez du baliorik izango, baldin eta ez baditu Udala Idazkaritzan horretarako dagoen Alkatezaren Dekretu eta Ebazpenen Liburuko inskripzioari dagokion kaxetina eta prozeduran interesa duten hirugarrenei egindako trasladoan Agiri Irteerako Udal Erregistroko zigilua.



Por ausencia, la Jefa de Servicio
Nº José García Andrés

El presente decreto no será válido si no lleva incorporado cajetín de inscripción del mismo en el Libro de Decretos y Resoluciones de la Alcaldía, obrante al efecto en la Secretaría Municipal, y la estampilla del Registro Municipal de Salida de Documentos en los traslados a terceros interesados en el procedimiento.